

BERA

Bertakoentzat gordetako aparkalekuetan trakzio mekanikoko ibilgailuak aparkatzeko gaitzen duten txartelak (bertakoen bereizgarria) lortzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala. Behin betiko onespena

Berako Udalak, 2023ko urriaren 18an egindako bilkuran, hasiera batez onetsi zituen Bertakoentzat gordetako aparkalekuetan trakzio mekanikoko ibilgailuak aparkatzeko gaitzen duten txartelak (bertakoen bereizgarria) lortzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala eta tasa horien ezarpena.

Erabakia 2023ko 223. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urriaren 26an, eta jendaurreko aldiari inork erreklamaziorik aurkeztu ez zuenez, ordenantzaren aldaketa behin betiko onetsitza jo eta haren testu osoa ematen da argitara, uztailearen 2ko Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraikiz (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea).

Beran, 2023ko abenduaren 19an.–Alkatea, Aitor Elexpuru Egaña.

BERTAKOENTZAT GORDETAKO APARKALEKUETAN TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUAK APARKATZEKO GAITZEN DUTEN TXARTELAK (BERTAKOEN BEREIZGARRIA) LORTZEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

Oinarria.

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatuaren arabera, eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraikiz.

Zerga-egitatea.

2. artikulua. Zerga-egitatea da ibilgailuak aparkatzea bertakoentzat gordetako eremuetan, Berako mugikortasun eta trafikoari buruzko udal ordenantzaren ezarritakoaren arabera eta ordenantza horretan jasotako zehaztapenen arabera.

Ordaindu beharra.

3. artikulua. Ordaindu beharra sortzen da, bertakoen bereizgarria edukitzeko eskubidea duten pertsona fisiko edo juridikoentzat, egiaztapen txartela eskuratzeko eskabidea aurkezten denean. Txartel hori izapidetzeko, ezinbestekoa izanen da behar den tasa aurretiaz ordaintzea, ez badago banku helbideratzerik.

Ordaintzera behartuta daudenak.

4. artikulua. Tasak honako hauek ordaindu behar dituzte:

a) Ibilgailuaren titularra den pertsona fisikoa, baldin eta helbidea Beran badu, bertakoen bereizgarria eskuratzearen truke.

b) Ibilgailuaren titularra den enpresa –pertsona juridikoa edo autonomoa–, bertakoen bereizgarria lortzeagatik.

c) Alkaiaga edo Zalain Zoko auzoetan erroldatutakoak, bertakoen bereizgarria lortzeagatik.

Tarifak.

5. artikulua. Aplikatu beharreko tarifak ordenantza honen tarifen eranskinean agertzen dira.

Kudeaketa arauak.

6. artikulua.

1. Bizilagun txartelen urteko tasak hainbanatzen ahalko dira hilabete naturalen arabera, baldin eta baimendutako aldia urtebetetik beherakoa bada. Halakoetan, proportzionalki kalkulatu da urtea bukatzeko falta den hilabete kopurua, txartela eskatu den hilabetea kenduta.

2. Erabiltzeko baldintzak betetzeari utzi diotelako, txartelak entregatzen dituztenei hilabete naturalen araberako hainbanaketa aplikatzen ahalko zaie, urtea bukatzeko falta den hilabete kopurua kontuan harturik, txartela entregatu den hilabetea kenduta, beraz. Dena den, 3. puntuko salbuespenak eginen dira.

3. Ez da kopururik batere itzuliko, baldin eta txartela deuseztatu edo kendu bada organo eskudunaren ebazpenez, txartel horren titularrak eskuratzeko eskubidea galdu duenean.

7. artikulua. Tasak ordainduko dira banku helbideratzearen bidez edota Udalaren kontuetan diru-sarrera eginez.

Salbuespenak eta hobariak.

8. artikulua. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga Berako Udalari ordaintzen zaion ibilgailuen jabeek ez dute tasaren 1. epigrafea ordaindu beharrik izanen.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.—Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, toki entitate honek onetsitako Ordenantza Fiskal Orokorra eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta horrekin bat datozen arauak aplikatuko dira.

Bigarrena.—Ordenantza hau indarrean jarriko da, eta ondorio juridiko osoak sortuko ditu, haren testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

TARIFEN ERANSKINA

I. epigrafea.—Urte fiskal baterako ematen den bertakoentzako bereizgarri bakoitzeko: 10,00 euro (20,00 euro bi urteko txarteletarako).

II. epigrafea.—Lehenaz geroztik, ematen den txartel bakoitzeko, galdu delako edo antzeko beste edozer dela eta: 5,00 euro.